

# Martxoaren 31tik apirilaren 7ra jokatuko dute Donostiako 35. Xake Irekia

Azken hamar urteetan ia bikoiztu egin dira lehiaketako parte hartzaileak; lehen 80 ziren, eta orain 170

## Onintza Lete Arrieta

Bi aste barru hasiko da Gipuzkoako xake txapelketa garrantzitsuenak: Donostiako 35. Xake Irekia. Martxoaren 31n hasi eta apirilaren 7a bitartean, zortzi egunean ehunka xake partida jokatuko dituzte Gros Xake Taldekoen egoitzan. Iaz 170 lagunek hartu zuten parte nazioarteko txapelketa horretan, eta aurten ere bide beretik ari dira, bi aste falta dira, eta 129 lagunek emana dute izena.

Zortzi egunean egun bakoitzean bederatzita partida jokatuko dituzte parte hartzaileek. Denek denen kontra jokatzeko ezinezkoa denez, beste sistema bat erabiltzen dute txapelketa zein den erabakitzeko. Hasteko, beste sailkapen batzuk kontuan hartuz, puntu kopuru bera dutenak elkarren aurka jokatuko dituzte partidak. Bestetik, inor ez da txapelketatik kanporatuko; guztiek jokatuko dituzte bederatzita txandak. Saio asko jokatuko dituztenez, puntu banaketak txapelketa bat gailentzea ekarriko du. Sistema suitzarrak da, hain justu, Donostiako irekian erabiltzen dutena.

Txapelketan Euskal Herriko nahiz mundu zabaleko xakelariak ari dira lehiatzen, eta herritarrek ikusle gisara bertaratzeko aukera izango dute. Bi arau baino ez dituzte bete behar ikusleek: isilik egotea eta sakelako telefonoak itzalita edukitzea.

Mikel Larreategi izango da



170 xake jokalarik izan ziren iaz 34. irekian. Aurten, 129k eman dute izena jada. GIPUZKOAKO XAKE FEDERAZIOA

lehiaketako epaileetako bat. Txapelketa indarra hartzen ari dela uste du: «Azken bospasei urteetan nahikoa izen hartu du. Espainiako Federazioak txapelketen ranking bat egiten du, eta lehenengo hamar txapelketen artean jarri du hau. Sailkapen ona da, Espainia delako mundu osoan xake txapelketa gehien antolatzen duena. Nik uste dut txapelketa garrantzitsua dela, eta parte hartzea ere gorantz doa etengabe; orain hamar urte ez zen 80 jokalarira iristen, eta azken hiru urteetan 150etik 170era pasatu gara».

Txapelketa Gros Xake Elkartearen egoitzan jokatu dute azken urteetan: Anoeta estadioaren ondoan, hain zuzen ere. Partidek

## Xakea eta euskara lotu ditu Goierriko Xake Taldeak 'www.xakea.org' webgunean

➔ Xakean jokatzeko euskaraz ikasteko aukera izango da hementik aurrera sarean. Goierriko Xake Taldeak [www.xakea.org](http://www.xakea.org) webgunea zabaldu du, eta bertan euskarazko materiala jarri dute herritarren eskura. Goierri Xake Taldeko begiraleen ekinbidea izan da, eta arrazoiak, argiak: «Hezitzaileok izaten dugun oztoporik handienetakoa euskarazko kalitatezko materialen falta da. Horregatik, proiektuak zabalkunde izan dezuan, euskarazko 2.0 material didaktikoa sortzea izan da gure helburua». Material didaktikoaren barruan bideoak, xake hiztegia eta beste hainbat atal dago; besteak beste, xakean jokatzeko aukera ematen du ataleko batek.

lauzpabost ordu irauten dute, orohar. Orduen inguruko informazioa eta xehetasun gehiago Gipuzkoako Xake Federazioaren

webgunean aurki daiteke, helbide honetan: [www.fgajedrez.org](http://www.fgajedrez.org).

Donostiako irekia gain, badi-tu bestelako lanak ere Gipuzkoa-

ko Xake Federazioak. Izan ere, taldekako xake ligak azken txapan sartuta daude. Urtarrilean hasi eta Aste Santura bitartean, lau mailatan ari dira lehiatzen 56 talde, bakoitza lau jokalarirekin:

## Bederatzita xake partida jokatuko dituzte parte hartzaileek

## Xake Federazioaren urteroko helburuetako bat xakea eskolan sartzea izaten da

gorengo maila, lehenengo maila, bigarrena eta hirugarrena daude. Gorenekoan eta lehenengo mailan hamabina talde daude; bigarren eta hirugarrenean, berriz, hamaseina. Federatuta, berriz, guztira 570 jokalarik inguru daude. Gipuzkoako gain, Euskadiko Liga eta Espainiakoa ere badaude, eta Espainiako Ligako txapelketa talde gipuzkoar bat da: Gros Xake Taldea, hain zuzen.

Gipuzkoako Xake Federazioak zuzendaritzan ibilitakoa da Larreategi, eta orain «beste lan batzuetan» badabil ere, ondo eza gutzen ditu 2012rako federazioak jarritako helburuak: «Eskola kirolean xakea ondo bultzatzea eta xakea eskolatan sartzea izaten da urtero eronketako bat; Donostiako irekia ahalik eta ondoan antolatzea ere bai, federazioaren ikur bat delako, eta federazioak gizartera begira egiten duen lan handienetarikoa bat; eta urteroko martxan ligak eta txapelketak antolatzea, azkenik».

**Hamaika**  
EUSKAL TELEBISIAREN



LTD/Euskaltel



Ordenagailuan



Ipad/Tablet



Mugikorrean

Nazioa eskura

[www.hamaika.tv](http://www.hamaika.tv)